

SAN JUAN BEZPERA ZUHAITZAREN BEDEINKAPENA

Ekainak 23, asteazkena
Konstituzio plaza

19:00

- GOIZALDI dantza taldeko neska-mutilak eta Felix Garitano, San Bizente eta Santa Maria elizetako parrokoa, Lizarraren inguruan kokatuko dira.
- Dantza taldeak SAN JUAN ZORTZIKOA dantzatuko du. Dantza hau orain dela hamalau urte berreskuratu zen.
- ZUHAITZAREN BEDEINKAPENA, Felix Garitano parrokoaren eskutik.
- GIZON DANTZA. Goizaldiko dantzari eta txistulariak.
- ZUHAITZARI SUA EMATEN ZAIO, jendeak dagoeneko bedeinkatua dagoen lizarraren ezpala eramaten du.

GIZON DANTZA

Gizon Dantza izenez ezagutzen den dantza, Gipuzkoako herri gehienetan festa egun nagusietan herriko plazan agintariek dantzatzen zuten dantza da. Juan Inazio Iztuetak (1767-1845) *Gipuzkoako Dantza Gogoangarrien Kondaira* (1824) liburuan esaten duenez beste soka dantza batzuk ere egin izan dira Gipuzkoan, baina denetan nagusia Gizon Dantza da.

Herri bateko festa nagusian Gizon Dantza jendaurreko ekintzarik inportanteena zela esatea ez da oker handia. Plazan, herriaren aurrean, alkateak eta zinegotziek dantzatzen zuten. Alkateak dantzatzeko gaitasunik ez bazuen, dantzari bikain bat eraman ohi zuen plazara Gizon Dantza bere lekuan dantza zezan.

Donostian 1700. urtean Soka Dantza egiten zen. Horrela dio Donostiako ohiturei buruz liburua idatzi zuen idazle britainiar batek. Hala ere badirudi soka dantzen tradizioa eten egin zela XVIII. mendean. Gerora berriz ere berreskuratu egin ziren dantza hauek.

Azken urte hauetan berreskuratze lana GOIZALDI Euskal Dantza Taldeak bete du. 1948. urtean sortu zenetik ez du hutsik egin San Juan bezperako zita honetan. Hala ere, urte hori baino lehen GOIZALDIko lehen irakasleak izan ziren Pujanatarrek ekarria zuten Gizon Dantza Donostiako Konstituzio Plazara. Guk dakigula, gutxienez 1931. urtetik.

Tradizio horrek oraindik bizirik dirau. Aurten ere GOIZALDI Dantza Taldeak Konstituzio Plazan dantzatuko du, larunbatean, arratsaldeko 19:00etan, zuhaitzaren inguruan. Dantzatu aurretik, San Bizente eta Santa Maria elizetako parrokoak, Felix Garitano jaunak, zuhaitza bedekatu du. Ohitura da donostiarren artean zuhaitzaren azala hartzea, Aste Santuan erramu bedekatuarekin egiten den bezala, etxea zorigaitzetatik babesteko. Ohitura hau Donostiara bizitzera etorri ziren Gaskoiek ekarri zuten, eta gaur arte iraun du.

Gizon Dantza hasi aurretik GOIZALDIk San Joan zortzikoa dantzatuko du. Urte luzeetako hutsunea betez, dantza hau berreskuratu zuen 1996ko San Joan bezperan GOIZALDIk. Ondoren abiatuko da Gizon Dantza.

VÍSPERA SAN JUAN BENDICIÓN DEL ÁRBOL

23 de junio, miércoles
Plaza de la Constitución

19:00

- Los integrantes de GOIZALDI dantza taldea y el párroco de San Vicente y Santa María, Felix Garitano, se colocarán alrededor del fresno.
- El grupo de baile interpretará SAN JUAN ZORTZIKOA. Este baile se recuperó hace catorce años.
- BENDICIÓN DEL ARBOL de la mano del párroco Felix Garitano.
- GIZON DANTZA. Dantzaris y Txistularis de GOIZALDI.
- SE ENCIENDE LA HOGUERA, la gente se lleva como recuerdo la corteza del fresno ya bendecido.

GIZON DANTZA

El baile conocido como la Gizon Dantza, es el baile que las diferentes autoridades ofrecían en el centro de la plaza en las Fiestas Mayores de los pueblos. Según narra Juan Inazio Iztueta en su libro “Gipuzkoako Dantza Gogoangarrien Kondaira” se han realizado diferentes tipos de soka-dantzak, pero el más importante entre todas ellas es la “Gizon Dantza”.

No es un error decir que la Gizon Dantza es la actividad más popular e importante de un pueblo. En la plaza, el alcalde y los concejales interpretaban este baile delante del pueblo. Si el alcalde no era hábil en esto del baile, ponía en su lugar a un dantzari.

En Donostia se realizaba la Gizon Dantza en el año 1700. Así lo indica un escritor británico en su libro sobre las costumbres donostiarras. Pero parece ser que esta tradición desapareció en el siglo XVIII. Posteriormente se recuperaría de nuevo.

Estos últimos años la labor de recuperación ha corrido de la mano de GOIZALDI dantza taldea. Desde 1948, año de su fundación, no han fallado a esta cita de la víspera de San Juan. Aunque los primeros profesores del grupo, los Pujana, ya habían traído este baile anteriormente a esta Plaza de la Constitución.

Este año GOIZALDI dantza taldea volverá a estar en esta plaza para bailar alrededor del fresno. Antes de la Gizon Dantza, el párroco de San Vicente y Santa María, Félix Garitano, bendecirá el árbol. Es costumbre entre los donostiarras llevarse de recuerdo la corteza del fresno una vez bendecida, al igual que el Domingo de Ramos en Semana Santa, para proteger la casa de los males. Esta tradición la trajeron los Gascones y hoy en día todavía se mantiene.

Daremos inicio a este acto con el Zortziko de San Juan de la mano de GOIZALDI dantza taldea, baile que incorporan en este día en el año 1996.